

IRUÑERRIA

KONPOST ONENARENDAKO III. SARIA

ETXEKOA · AUZOKOA · ESKOLAKOA



IZEN-EMATEAK

Martxoaren 18tik apirilaren 14ra

IZENA EMATEKO GUNEAK

Iruñerriko Mankomunitatea

Erregistroa, Chinchilla Jeneralaren k., 7
(Rozalejoko Markesaren kaletik sartu behar da), Iruña

Helbide elektronikoa

mcp@mcp.es



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

Servicios de la
Comarca de Pamplona s.a.
Iruñerriko
Zerbitzuak s.a.

LEHIAKETAREN OINARRIAK ETA IZENA EMATEKO FITXAK

1. Lehiaketaren sustatzailea

Iruñerriko Zerbitzuak SA da (IZSA).

2. Hartzaileak

Iruñerriko Mankomunitatearen esparruan, etxean, auzoan edo eskolan konposta egiten duten pertsonak, direla IMk sustatzen dituen **etxeko konpostajerako** kanpainetan parte hartzen dutenak, direla bere kasa egiten dutenak. **Auzoko konpostajerako guneek** gune bakoitzeko boluntarioen bidez eman ahal izango dute izena. Eta **ikastetxeek** baimendutako pertsona baten bidez egin ahal izango dute.

3. Aurretiko izen-ematerako epea

Lehiaketan izena emateko epea 2023ko martxoaren 18a eta apirilaren 14a artekoa izango da. Izen-ematea formalizatzeko, oinarriekin batera dagoen fitxa bete eta IZSAREN bulegoetara eraman behar da (Chinchilla Jeneralaren kalea, 7, Iruña), 08:30etik 14:30era, astelehenetik ostiralera. Posta elektronikoen bidez ere bidali ahal izango da, mcp@mcp.es helbidera, gaian "Konpost onenarendako hirugarren lehiaketa" jarrita. Izen-emate bakarra onartuko da etxebizitza, gune edo eskola bakoitzeko.

4. Parte-hartzaileen konpromisoa

Izen-ematea formalizatzean, parte-hartzaileek konpromiso hauek hartuko dituzte:

- Landako langile teknikoak etxean hartzea, konpost-lagina hartzeko. Langile teknikoek zuzenean hartuko dute lagina konpost-ontzitik.
- Dagokion fitxa betetzeko behar den informazio guztia ematea, konpost-ontzia ikusten uztea eta, beharrezkoa bada, argazkiak egiten uztea, antolaketaren eskakizunengatik.
- Saria hartzera joatea, saritua izanez gero.

Aurreko konpromiso horietakoren bat ez betetzeak parte-hartzetik kanporatzea eta saria kentzea ekarri ahal izango du.

5. Lehiaketaren garapena

Izena eman duten guztiei konpostajeari buruzko ezagutzak baloratzeko galdetegi bat bidaliko zaie posta elektronikoz, betetzeko eta IMra igortzeko. Galdetegi horrek 40 puntuko balioa izango du. Aukeran, eta nota igotzeko, minutu bateko iraupeneko bideo bat ere bidali ahal izango dute, konpostajearen esperientzia, konpostajearen abantailak eta abar kontatzeko. Balorazio onena lortzen duen bideoak 5 puntu lortuko ditu, eta aurkeztutako bideo bakoitzak, 3 puntu.

Galdetegietan lortutako emaitzetatik abiatuta, puntu-kopuru handieneko izen-emateak hautatu eta lehiaketaren hurrengo fasera igaroko dira: 20, etxekoan; 5, auzokoan; eta beste 5, eskolakoan. Hautatu ez diren izen-emateei posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie ez onartzeko egon diren arrazoiak.

Maiatzean eta ekainean, Mankomunitateko zerbitzu teknikoak bisita egingo die hautatutako 30 parte-hartzaileei, konpost-lagina hartzeko. Bisita horren gainean, txosten tekniko bat egingo da, eta 40 puntuko balioa izango du. Jasotako 30 lagnetan, ezaugarri fisiko-kimikoak, mantenu gaien kantitatea eta metal astunen kontzentrazioa aztertuko dira. Analisiaren emaitzak 20 puntuko balioa edukiko du.

Hiru faseen baturan puntu-kopuru handiena lortzen duten hautagaiek irabaziko dute. Fase guztiak gauzatzea gainbegiratu du epaimahaiak, eta balorazio gehigarria egingo du, beharrezkoa bada.

Lagina hartu zaien parte-hartzaile guztiek txostenaren emaitza eta konpostaren analisia jasoko dute.

6. Antolatzaileen konpromisoa

Antolatzaileek konpromiso hauek hartuko dituzte:

- Lehiaketan parte hartzeko behar diren materialak ematea (lehiaketaren oinarriak, aurretiko izen-ematea egiteko inprimakiak...).
- Lortutako laginak era anonimoz, objektiboan eta bidezkoan ebaluatzea.
- Sariak ematea, oinarri hauetan jasota dagoenaren arabera.

7. Sariak

Etxeko konpost onenaren saria diru-kopuru bat izango da, baratze eta/edo lorategirako produktuekin edo Nafarroako Landetxeen Sareko establezimendu batean nekazaritza-turismoko egonaldi batekin trukatu beharrekoa.

- LEHEN SARIA: 600 euro
- BIGARREN SARIA: 300 euro
- HIRUGARREN SARIA: 150 euro

Eman ondorengo lehen sei hilabeteen barnean trukatu beharko dira sariak.

Auzoko konpost onenaren saria guneari eta haren erabiltzaileei aitortza publikoa egitea izango da.

Eskolako konpost onenaren saria ikastetxearen aitortza publikoa egitea eta hiri-baratzerako mahai bat izango da.

Sariak konpostaren egunean emango dira, 2023ko urrian.

8. Epaimahaiaren balorazioa

Konpostaje deszentralizatuan espezialistak diren langile teknikoek egingo dute.

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Aplikatzekoa den araudian ezarrita dagoena betetze aldera, jakinarazi behar dugu formulario honetan biltzen diren datuak Iruñerrian etxeko, auzoko eta eskolako konpostajea egiten duten pertsonen eta taldeen hirugarren sariketa kudeatu eta antolatzeko xedearekin tratatuko direla. Datu horiek ez zaizkio beste inori lagako, legezko aurreikuspenak izan ezik. Halaber, adierazi behar dizugu fitxategiaren arduraduna IZSA dela, eta harengana jo ahal izango duzula, datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak eta daukazun gainerakoak bete ahal izateko, proteccion-datos@mcp.es helbidearen bidez.

Pribatutasunari buruzko informazio gehigarria hemen kontsultatu ahal da: http://www.mcp.es/proteccion_de_datos (Sentsibilizazio-jarduerak, ludikoak eta aisia osasungarrikoak).

Izena emateko fitxa ETXEKO KONPOSTA

Izen-ematea eskatzeko eguna:

IZEN-ABIZENAK			
HELBIDE OSOA			
Harremanetarako telefonoak			
Helbide elektronikoa			
Etxean bizi diren pertsonak		Zenbat alditan atera duzu konposta?	
Berdegunearen, baratzearen eta/edo lorategiaren m ² -ak		Etxean konposta egi-ten hasi zineneko urtea	

KONPOST-ONTZIAREN EZAUGARRIAK

Tamaina	Kokapena
320 litro	Egutera
420 litro	Ospela
800 litro	Eguzkia eta itzala
Beste bat (adierazi)	Beste bat (adierazi)

PROZESUAREN EZAUGARRIAK

Botatzen direnak			Nahasten duzu?		Airez-tagailua		Konposta ateratzea		Konpostaren erabilera	
Baratzekoak	Lorategikoak	Sukaldekoak	Bai	Ez	Bai	Ez	Behin		Lorategia	
							Bitan		Baratzea	
Beste batzuk: lastoa, zerrautsa, egunkari-papera, simaurra, azeleratzekoa, kartoia, etab.			Zenbatean behin?		Zenbatean behin?		Hirutan		Loreontziak	
							Gehi-gotan		Beste batzuk	

Iruzkinak/oharrak/beste batzuk

Izena emateko fitxa AUZOKO KONPOSTA

Izen-ematea eskatzeko eguna:

GUNEAREN IZENA			
GUNEAREN HELBIDEA			
Harremanetarako pertsona			
Harremanetarako telefonoa			
Helbide elektronikoa			
Parte hartzen duten familiak		Boluntario kop.	
Konposta egiten hasi zen urtea		Zenbat alditan atera duzue konposta?	

Izena emateko fitxa ESKOLAKO KONPOSTA

Izen-ematea eskatzeko eguna:

IKASTETXEAREN IZENA			
IKASTETXEAREN helbidea			
Harremanetarako pertsona			
Harremanetarako telefonoak			
Helbide elektronikoa			
Parte hartzen duten ikasleak		Boluntario kop.	
Konposta egiten hasi zen urtea		Zenbat alditan atera duzue konposta?	